



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

## II. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2017ko maiatzaren 10, 11 eta 12  
Iruñea, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

### INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA

Joan-etorriko arkitekturak.  
Egungo arkitekturaren joan-  
etorriak

*Arantzazu Luzarraga*

149-156 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.ii.03.21>

ANTOLATZAILEA:



ELKARLANEAN:



LAGUNTZAILEAK:



## Joan-etorriko arkitekturak. Egungo arkitekturaren joan-etorriak

Luzarraga, Arantzazu

*ProLab Ikerketa Taldea, Madrilgo Arkitektura Goi Eskola Teknikoa  
arantzazu.luzarraga@upm.es*

### **Laburpena**

Ikerketa honen xedea da *offshoring*-ak gaur egungo espazioaren sorreran duen eragina aztertzea. Jendea ez ezik materialak, informazioa, energia, produktuak... mugimenduan ari dira etengabe. Hala, mugikortasunari buruzko kontuek gai mamitsua osatzen dute; erronka botatzen diete zientzia sozial eta arkitekturari, hau da, tradizionalki gizarte sedentario batean oinarritu diren diziplinoi. Doktoretza-ikerketa honen asmoa da bi zeregin espezifiko betetzea: batetik, nahi du *offshoring*ak arkitekturaren honako lau alorretan eragindako aldaketa aztertzea: lekuetan, egituretan, programetan eta eraikuntzan. Bestetik, hirigintza-elementu hauen ahalmenak aztertzeak arkitekturak jarrai ditzakeen estrategiak atzemango ditu, gizartearen eskaera errealei erantzuna emango badiote.

Hitz gakoak: *offshoring*-a; mugikortasuna; arkitektura garaikidea; BRIC herrialdeak.

### **Abstract**

*The research is focused on the impact of offshoring in generating contemporary spatiality. Not only people but materials, information, energy, products... are on the move right now, so issues of mobility are centre stage; they challenge social sciences and architecture, disciplines that have traditionally been focused on a sedentary society. The purpose of this doctoral research is to achieve two specific tasks: first, it intends to analyse the influence of the new spatial turn produced by offshoring in four architectonic aspects: places, structures, programmes and constructions. Secondly, the analysis of these urban potentials will frame possible strategies for a coherent architectural practise with current demands.*

*Keywords: offshoring; mobility; contemporary architecture; BRIC countries.*

### **1. Sarrera eta egungo egoera**

*Offshore* hitzak bi adiera ditu. Lehenak, hitzez hitz esan nahi du itsasoan dagoena, kostaldetik urrun. Bigarrena, aldiz, atzerrian egindakoari dagokio, bereziki kostu txikiagoak edo erregulazio ez oso zorrotzak aprobetxaturik.

Ingelesezko terminoa ‘deslokalizazio’ bezala itzultzea ez da, hortaz, guztiz zehatza. Gertatzen den lekualdatze hori beti egiten da etekin bat ateratzeko asmoz, mugimendu horrek beti dakar ezkutuan eta arau orokorretik kanpo jardutea.

Azkenaldian herritar askoren ahotan dabilen hitza da, batez ere diru eta zerga gaiei dagozkien berriak direla eta. Horrez gain, beste prozesu asko ere leku batetik bestera mugitzen dira, guztiz edo neurri baten, lokalizaziorik onuragarriena bilatzea xede. Hala nola, produktuen manufaktura, plazera, energia, hondakinak, karbono dioxido emisioak edota segurtasuna (Urry, 2014).

Gizarte orok hartu ohi du bere baitan pertsonen zenbait mugimendu, baina gizarte kapitalistek fenomeno honen eskala eta eragina handitu dute (Urry, 2014). Autore askok aldarrikatzen dute botereak gaur *offshore* diharduela (Shaxson, 2011).

Gertakari hau hainbat gizarte-zientzian aztertu da. Zygmunt Bauman pentsalari poloniarrak azpimarratzen du gizarte modernoaren izaera aldakorra, arina eta behin-behinekoa dela. Horretarako, ‘modernitate likidoa’ (Bauman, 2000) hitza asmatu du. Gero eta hurbilago daude hizkuntza eta tradizio ezberdineko herrialdeak. Hori horrela izanik, gizabanakoen ziurtasunak deuseztatu egin dira; modernitate ‘solidoan’ jakina zen zeri heldu behar zitzaion; orain, ordea, zaila egiten da epe luzerako erabakirik hartzea.

Soziologiari dagokionez, John Urry soziologo britainiarrak idatzi zuen oso aipatua den *The new mobilities paradigm* artikulua Mimi Sheller-ekin batera 2006. urtean. Bertan adierazi zuten paradigma-aldaketa bat gertatzen ari zela gizarte-zientzietan. Pertsona, ideia eta gauzen

mugimenduak aztertzen ditu paradigma horrek, baita mugimendu horiek dakartzaten eragin zabalagoak ere. Gai honetan ondoren *Mobilities* liburuan sakondu zuen. Urte batzuk beranduago, 2014. urtean, *Offshoring* deritzona kaleratu zuen. Liburu honek hainbat *offshoring* kasu dokumentatzen ditu, batik bat lana, plazera, energia edo segurtasunarekin loturik daudenak. Eredu eta prozesu hauek aztertuz, ulergarriago egiten ditu mundu hauen nondik norakoak eta globalizazioaren alde iluna azaleratzen du.

Giorgio Agamben filosofo italiarra da *offshoring* delakoak espazio fisikoan duen garrantzia aipatzen duen lehen autoreetakoa. Horrek 'salbuespen-egoera' terminoa erabiltzen du lurralde deslokalizatu hauen funtzionamendua azaltzeko. *Salbuespen egoera, Homo Sacer II* lanean aztertzen du figura juridiko hau, zeinek estatu ala lurralde jakin baten arauetako etenaldi partzial edo guztizkoa dakarren.

Egile italiarrak militarizazioaren ondorioz sorturiko albuespen-egoerak jorratzen ditu nagusiki. Nazien garaian gertatu zen moduan, George W. Bush-ek *military order* berezi bat aurkeztu zuen 2001. urteko azaroaren 13an. Dokumentu honek jarduera terroristetan aritzeaz susmagarri den edozein herritar ez-estatubatuarren atxiloteta mugagabea baimentzen du. Albuespen egoera hauek sortzean Guantanamo atxiloteta-zentroaren modukoak agertzen dira, bistatik urrun dauden errealitateak.

Zuzenbideak arautu gabeko lurralde hauetan legerik ez dago, baina eguneroko bizitza berdin-berdin ematen da. Berehalakotasunak, indarkeriak eta unean uneko negoziatioek arautzen dituzte espaziook.

Egoera hauen eragina nabaria den arren, ez dira oso ugariak arkitekturaren arloan esparru hau landu duten autoreak. Haien artean Keller Easterling arkitekto estatubatuarra nabarmetzen da. Horrek *produktu espazial* (Easterling, 2005) izena jarri die egoera hauei<sup>1</sup>. Haren hitzetan espazio hibrido hauek ohiko egitura eta jurisdikzioetatik kanpo existitzen dira. Mundu globalizatuaren diskurtso unitarioaren kontra egiten dute. Merkatuaren eskaerei berehalako erantzuna ematen diete. Horretarako, pertsonak, kapitala, material gordinak edota produktu manufakturatua mugiarazten dituzte.

Tokiak sortzeko gure era aldatzen du beste leku batzuetara joateak, dela turismoa egiteko, dela lan baten bila, dela premiarik larrienak behartuta. Azpiegitura energetiko ala komunikaziozkoak deslokalizatzeak kode amankomun batzuetan lan egitera behartzen gaitu. Oinarrizko zerbitzuak milaka kilometrotara aurkitzen den pertsona baten bidez lortzeak gure arkitektura programak aldatzen ditu. Gure ingurumena kontainer-ontzietan garraiatutako produktuez eraikitzeak arkitekturaren estandar materialak aldatzen ditu.

Mundu mailako trukaketa hauen intentsitatea areagotu egin da, eta horrek gutako bakoitzak egunero bizi dugun espazioari eragin dio. Arlo guztietako profesional, akademiko eta ikasleek gero eta argiago dute fluxu hauen inpaktuak dakartzan aldaketak nabariak direla. Eta hain justu, uste horixe da doktoretza-tesi honen abiapuntua.

## 2. Ikerketaren helburuak

Eduard Punset dibulgatzaile zientifikoak adierazten du azken boladako krisi-giroaren jatorria dela orain dela hamar mila urte nomadismotik nekazaritza-kokalekuetara pasatzean eraiki ziren pentsamolde-aldaketak<sup>2</sup>. Gizarte globalizatuak dakarren nomadismo berriak kolokan jartzen ditu gure ziurtasun guztiak.

---

<sup>1</sup> Keller Easterling arkitektoak 'produktu espazial' bezala izendatzen dituenen artean *resort*-ak, teknologia-parkeak, frankiziak, golf-zelaiak, portuak eta antzekoak daude. Espazio hauek salmenta, negozio eta merkataritzarako formula komertzial ezagunak dira. Honakoa gomendatzen dugu *spatial product* kontzeptuari buruzko irakurketa sakon baterako: Easterling, Keller. *Enduring innocence: global architecture and its political masquerades*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press, 2005, 1-3 or.

<sup>2</sup> Punset, E., 'Nómadas otra vez', zientzialariaren blog pertsonalean argitaratua, ondorengo estekan irakurgai: <http://www.eduardpunset.es/10678/general/nomadas-otra-vez>

Leku jakin bat ez da inorentzat betiko kokagune. Hau jakinik, zentzugabea izango litzateke kontrakoa pentsatuz zerbait eraikitzea. Halere, arkitekturak zailtasun handiak dauzka egoera horri erantzuna emateko. Oro har, ez da batere ondo moldatzen ezegonkortasunari aurre egitean.

Sarreran azaldu bezala, tesi honek zehazki *offshoringari* buruzko ikerketa egiten du. Batetik, aztertzen du fenomeno honek arkitekturaren lau alor espezifikotan eragindako aldaketa; alegia, lekuetan, egituretan, programetan eta eraikuntzan dauzkan ondorioetan. Bestetik, eguneroko prozesu ugari urrunera eramate horiek aztertzeak arkitekturak jarrai ditzakeen estrategiak atzemango ditu, gizartearen eskaera errealei erantzuna emango badiote.

## 2.1 Estrategia

Federico Soriano arkitektoak azpimarratzen du munduaren ezagutza egunkarietan soilik dagoela<sup>3</sup>. Zaila da egunerokotasunarekin duten erlazio estua beste iturri batzuetan aurkitzea, egunero-egunero formatu berean eta orrialde-kopuru berarekin inprimatzearen poderioz.

Beste diziplina zientifiko batzuetan aintzat hartzen da ikerketa batek mementoko aurrerapausoak kontuan hartzea. Aldiz, arkitektook nahiago dugu gure denbora eman ikerlanak irudi bitxi edo politez betetzen. Horregatik, sarritan tesi-lanek liburutegi konkretu batera joan eta bertako irudiak eskaneatu baino ez dute egiten. Tesi honen kasuan, ostera, *biblio* (liburu) *theke* (kutxa)ren garrantzia alde batera utzirik *hemera* (eguna) *theke* (kutxa)ra jo da informazio bila. Eguneroko kutxa horretan, hausnarketa eratzeko eta diskurtsoa garatzeko modua espazioaren egitura-aldaketek uzten dituzten arrastoen identifikazioan datza.

Tesiak lau kapitulu dauzka. Kapitulu bakoitza egunkariko berri batekin hasten da. Berri horretan beti gailu bat agertzen da, arreta ematen diguna. Gailu horiek ondorengoak dira:

- Turismo *resortetan* erabili ohi diren RFID<sup>4</sup> eskumuturreko bat, tokiei buruzko kapituluan.
- Petxora itsasoan dagoen Prirazlomnaya olio-plataforma, egiturei dagokien kapituluan.
- Chennaingo *call-centreko* langile baten *boxa*, programen aldaketaz ari den kapituluan.
- Shenzhengo portuko kontainer bat, eraikuntza lantzen duen kapituluan.

Elementu horiek gailutat hartzen dira, erreferentziat harturik Giorgio Agamben filosofoak *gailu* kontzeptuaz ematen duen definizioa (Agamben, 2011). Definizio hori, aldi berean, Foucaulten lanean oinarriturik dago. Azken horren arabera, gailu batek funtzio estrategiko konkretu bat du, botere erlazio batean barneratua.

Gure ikerketan agertzen diren lau gailuek kontaktuan jartzen gaituzte kapitulu bakoitzean aztertzen den arkitektura alorrarekin. Hala, lehenengo kapituluan RFID eskumuturrekoak Rio 2016 Joko Olinpikoen *resorta* aurkeztuko du. Bigarren kapituluan, Prirazlomnaya *offshore* olio-plataformak komunikazio eta energia azpiegitura berriak nabarmenduko ditu. Hirugarren kapituluan, Chennaingo IT langilearen lanpostuak kontaktuan jarriko gaitu urruneko programekin. Laugarren kapituluan, Shenzhengo portuko kontainerrak aipamena egingo dio logistikan eta estandarizazioan oinarrituriko eraikuntzari.

Arestiko hurrenkera nagusi horretaz baliatuz, beraz, testuak aztertzen du nolako eragina duen *offshore* jarduteak tokietan, egituretan, programetan eta eraikuntzan.

Banakako analisi bakoitzak ondorio partzialak gehituko ditu, eta bukaeran aplikatuko dira, zehazki, ondorioen ataleko kasua aztertzen denean.

## 2.2 Gaur eta hemen

---

<sup>3</sup> Soriano, F. Arkitektura Proiektuen katedradun izateko oposizioan emandako hitzaldia. ETSAM, UPM 2016/05/18.

<sup>4</sup> RFID Radio Frequency IDentification hitzei dagokie. Atxikitzen zaion pertsona edo objektuari buruzko datuak biltzen dituen gailua; hala nola nora doan, zein erosketa egiten dituen, etab.



Ikerketa-kasu bakoitza BRIC<sup>5</sup> akronimoa osatzen duten herrialde bati dagokio: lehenengoa, tokiei dagokiona, Brasilen kokatzen da; bigarrena, estrukturari buruzkoa, Errusian; hirugarrenik, programak lantzen dituen, Indian dago; azkenik, eraikuntzari buruzkoa Txinan kokatzen da. Herrialde hauek suspertzen ari diren herrialdeak dira. Euren arrakasta *offshore* funtzionatzean datza. Herrialde garatuek euren mugetatik urrun kokatzen dituzte gero eta prozesu gehiago, etekin gero eta handiagoen bila; gure artean ikusi nahi ez ditugunak, horiexek gertatzen dira BRIC herrialdeetan. Beraz, analisi-eremu honen aukeraketa justifikaturik dago. Gainera, arkitekturan ikerketa orok distantzia jakin bat ezartzen du ikertzailearen eta ikergaiaren artean. Objektibotasuna bermatzeko egiten da. Halere, normalean distantzia hori denborazkoa izan ohi da; kasu honetan, ordea, distantzia ez da denborazkoa, espaziala baizik. Arkitektura diziplina espaziala izanik, komenigarritzat jo da analisi-eremua espaziala izan dadin, gaur egungo errealitate bati dagokiona, hartara ikerketa horrek balio dezan arkitekturak gaur eta hemen kontuan hartu beharreko parametroak identifikatzeko.

Kapitulu bakoitza saiakera labur batekin bukatzen da, gugandik hurbil gertaturiko berri batek eragindakoa. Hala, argi ikusiko da urrunean gertaturikoek gure egunerokotasunean duten eragina; kapitulu bakoitzean ateratako ondorio partzialak banan-banan baieztatuz joango gara. Etengabeko joan-etorri hori egon badagoela ikusiko dugu. Bukatzeko, tesiaren ondorioak biltzen dituen kapituluak El Ejidoko kasua aztertzen du. Hurbileko kasu honek tesian zehar azaldu diren lau alorrak biltzen ditu. Horri begira, *produktu espazial* eraginkorra sortu du.

Rem Koolhaas arkitekto holandarrak 1995. urtean *S,M,L,XL* liburuaren barruan Singapurri buruz eginitako ikerketa txiki bat sartu zuen. Hamabost urte beranduago saiakera hau solte publikatu zen berriz, eta egileak hitzurreko esanguratsua idatzi zuen. Bertan, ondorioztatzen du 90. hamarkadan ematen zuela Singapur Txinaren garapenerako eredu izango zela, baina denbora pasa ahala gure ingurumenaren aurreproiektu bilakatu zela<sup>6</sup>. Era berean, gure ustetan antzeko zerbait gertatuko da gaur *offshore* gertatzen direnekin; horiexek bilakatuko baitira gure ingurunean etorkizun hurbilean sortuko direnen aitzindari.

### 3. Ikerketaren muina eta ondorioak

#### 3.1 Han...

Aurrez esan bezala, kapitulu bakoitza egunkariko berri batekin hasten da. Berri horretan agertzen den *gailuak* aurreratzen du kapituluan lantzen den arkitekturaren alorrak egun duen izaera.

Lehenengo kapituluan aztertzen da pertsonen mugimenduak tokiak sortzeko eran duen eginkizuna. Hala, Joko Olinpikoetako *resortetik* hasten den analisiak langile *expat*<sup>7</sup>ak bizi diren urbanizazio itxiak landuko ditu ondoren; azkenik, gerra edo hondamendi naturalen ondorioz sorturiko kanpamentuak ikusiko dira. Nabarmena da nola desirak eraginda hasten den mugimenduak, lanak eginarazia eta beharrianik larrienak bultzatuak komunean hainbat gauza dituzten. Hasieran, ematen du toki hauek perimetro itxia dutela, ezarri nahi den kontrolaren ondorio. Aldiz, analisi sakonagoak erakutsi digu behin eta berriro sortzen direla norbanakoaren esperientzian oinarrituriko tokiak. Kontrol-mekanismoak gero eta sofistikatuagoak dira, ikusgaitzagoak; RFID teknologiaz baliatuz gure mugimendu edo kontsumoari buruzko informazio asko ematen dugu nahi gabe. Baina, aldi berean,

<sup>5</sup> 2003ko urriaren 1ean, Goldman Sachs nazioarteko inbertsio-bankuak *Dreaming with BRICs: The Path to 2050* ikerketa-txostena kaleratu zuen. Jim O'Neill ekonomistak zuzendu zuen ikerketa-programa hau eta BRIC akronimoaren sortzaileztat hartzen da.

<sup>6</sup> Koolhaas, R. (2010). *Sendas oníricas de Singapur retrato de una metrópolis potemkin- o treinta años de tabla rasa*, Bartzelona, GG. 9. orrialdean, hitzaurrean, zehazki ondorengoa irakur dezakegu: “testu hau idatzi zenean Singapur Txinako garapen eredu izango zelakoan geunden, baina hori gerora ilusio hutsala suertatu zen; neurri batean, izatera heldu zena geure ingurunearen aurreproiektua izan zen: bertan agerturiko gai asko orain gure artean dauzkagu ate joka.”

<sup>7</sup> Ingelesezko termino hau euren jaioteritik kanpo denboraldi batez bizi direnentzat erabiltzen da. Ohiko erabileran erreferentzia egiten dio konpainiek atzerrira bidalitako profesional trebeei.

gailuak igortzen eta jasotzen dituen erradiazioak ez du perimetro itxi bat eratzen; sistema honek zehaztugabetasun tarte bat sortzen du, sistemaren beraren boikota baimentzen duena.

### 1. irudia. El Ejidoko kirol-portua eta Ceutako El Tarajal hondartza (iturria: Luzarraga, 2015 eta 2010)



Bigarren kapitulari dagokionez, azaleratzen da zein diren energia eta komunikazio-azpiegiturak gero eta urrunago eramatearen ondorioak. Hori argitze aldera, aztertu da nolako eboluzioa izan duten historioan zehar komunikazio eta energia azpiegiturok. Lurraldean modu linealean agertzetik ikusezin izatera pasatu dira. Olioia lehen hodiedan garraiatzen zen batez ere; orain, berriz, *offshore* dauden plataformetan erauzi eta itsasontziz garraiatzen da. Komunikazio-azpiegiturei dagokienez, zaldiz edo trenez garraiatzen ziren posta-zerbitzuetatik satelite komunikazioetan oinarrituriko nabigaziora pasatu gara. Tesiak aditzera ematen du azpiegitura ikusezin hauen kartografiak eta mapak zer nolakoak diren; itsasontzien nabigatzeko-mapak, satelite bidezko irudiak eta batez ere GIS<sup>8</sup> teknologiaren bidez egindako kartografiak lagungarri izan baitaitezke arkitekturan ere mugimendu edo zirkulazio ikusezinak irudikatzeko orduan.

### 2. irudia. El Ejidoko ASTER<sup>9</sup> airetik irudia (iturria: NASA)



Hirugarren kapituluan aztertzen da nolako eragina duen zerbitzuak urrunetik emateak arkitektura-programetan. Indiako Chennai hirian dagoen *call-centre* batetik abiatuz, bertako

<sup>8</sup> GIS *Geographic Information System* hainbat elementu bateratu eta erlazionatzen dituen erreminta-multzoa da. Datuak eta kokalekua harremanetan jartzen ditu, plangintzan eta beste motatako erabakietan eraginkortasuna hobetzea xede izanik.

<sup>9</sup> ASTER *Advanced Spaceborne Thermal Emission and Reflection Radiometer* da NASAk, *Japan's Space Systems* eta Japoniako Ekonomia Ministerioak Lurra arakatzeko martxan jarritako ekimena. Sateliteak irudi termikoak jasotzen ditu.

langile baten *boxa* aztertu da. Ondorengo ondorioa atera da elementu-sorta horretatik: objektuek eta kopresentziak duten garrantzia egungo arkitekturan. Bi kontzeptu hauek lantzean elementu finkoen ordez altzarien bidez konfiguratzeko den arkitektura-adibideak azaldu dira; alegia, bi lekutan aldi berean egotea ahalbidetzen duten arkitektura-programak.

### 3. irudia. Madrilgo Usera auzoko mintzategiak (iturria: Luzarraga, 2010)



Laugarren kapituluaren hau da, Shenzhengo portuko kontainer baten analizatuz hasten denean, aurreratzen da nondik eta norakoa izan daitekeen aldi baterako arkitekturak eraikitze behar den kudeaketa. Logistika duen funtzionamendua estandarizazioan oinarriturik dago; horri esker, materialak eta produktuak igorgarriagoak dira<sup>10</sup>, testuinguru ezberdinetan erabiltzeko. Logistikan bezala, trukaketa ugari egin beharreko errealitatean arkitekturak kode komun batzuk erabilita<sup>11</sup> funtzionatu dezake.

### 4. irudia. Kontainerrak Algeciraseko portuan (iturria: Luzarraga, 2010)



## 3.2 ... eta hemen

Kapitulu bakoitzetik ateratako ondorio partzialak perimetroa, zirkulazioa, kopresentzia eta estandarizazioari buruzkoak dira. Bukatzeko, tesiak aztertzen du ondorio-kapitulu gisa El Ejido herria, gugandik hurbil dagoen *offshoring* salbuespen-egoera bat. Ikusiko dugu nola legez kanpoko

<sup>10</sup> Estandarizazio eta normalizazioari buruzko hausnarketa sakonago baterako irakurri ondorengoak: Luzarraga, A. (2016). "La creación de normas para la autonomía. De los objetos a los protocolos", *Publicación Actas digitales congreso Critic-All2*, 179-285 or.

<sup>11</sup> Kode komun batzuen arabera funtzionatzen duten arkitekturei buruz, honakoa irakurgai: Luzarraga, A. (2012). "Estructura/Structure", Hainbat egile, *Words. Manual de Proyectos UD 26. Colección Textos Académicos ETSAM-UPM*, 9, Mairia, Madril, 54- 57 or. eta 108-111 or.



immigranteek, plastikoez, logistikak eta legeak zorrotz ez betetzeak osatzen duten osotasun honek ahalbidetzen duen tesitik ateratako ondorio partzialak banan-banan baieztatzea.

Baina oraindik ere gerta dakiguke geuri buruari galdetzea honek guztiak zein eragin duen gu bizi garen testuinguruan. Herralde garatuek euren mugetatik urrun gero eta prozesu gehiago kokatzen dutenez, bizi garen hiriak funtzio jakinik gabe geratzen dira. Hortaz, gure egunerokotasuna eremu gero eta uniformeago batean bizi dugu. Halere, arretaz begiratzen baldin badugu, ikusiko dugu badirela hirietako bazterretan dauden poligonoetan edo oporretan joateko erabiltzen ditugun aireportuetan ere *offshoring* arkitekturak. Izan ere, gero eta salbuespen-espazio gehiago bizi ditugu oharkabean egunerok.

#### 5. irudia. El Ejidoko plastiko-paisaia (iturria: Luzarraga, 2015)



#### 4. Etorkizunerako planteatutako norabidea

Tesiak urruneko lau kasu aztertzen ditu. Halere, kapitulu bakoitza aurrera joan ahala, ikusten da nola gure ingururik hurbilena ere horrelako egoerek baldintzatzen duten. *Offshoring*aren ondorioak nabarmenak dira gure eguneroko toki, egitura, programa eta eraikuntzetan.

Beraz, arkitektura proiektatzeko moduak arreta jarri behar die funtzionatzeko modu hauei. Ezin dugu tokiak proiektatzeko orduan antzina moduan orientazioari edo argitasunari buruz soilik pentsatu. Egiturak proiektatzerakoan kontuan izan beharko dugu irudikatzeke zein modu eskatzen duten zirkulazioan dauden elementuek. Eraikin edo espazio publikoen programak aurreikustean, aintzat hartu beharko dugu gutariko edonor bi tokitan dagoela aldi berean teknologiarik esker. Azkenik, eraikuntza kudeatzeko modeloek logistikaren edo propietate intelektualaren arauak jarrai ditzakete, egoera ezegonkorretara hobeto moldatzeko.

Bada proposatzen duenik *offshoringa* gaitzestea eta *reshoringa* lehenestea. *Offshoringak* dakartzan berdintasun-eza eta energia-kontsumo izugarria ekiditeko, John Urry soziologoak esaten du urrunera eraman diren prozesuak bueltan ekarri behar direla (Urry, 2014). Baina doktoretza-tesi honen helburua ez da irtenbide moraliki hobeak aurkitzea, baizik fenomeno jakin baten ezaugarri eta ondorioak analizatzea. Beraz, ildo horretatik jarraituz, beste ikerlan batzuk izan daitezkeela aurreikus dezakegu.

#### 5. Erreferentziak

- Agamben, G. (2001). "¿Qué es un dispositivo?", *Sociológica* (México), 26, 73, 249-264.
- \_\_\_\_\_ (2010). *Estado de excepción: Homo sacer, II, 1*. Adriana Hidalgo Editora, Buenos Aires.
- Bauman, Z. (2000). *Liquid modernity*. Polity Press, Cambridge, UK.
- Beck, U. (2012). "La redefinición del proyecto sociológico: el desafío cosmopolita", *Sociológica*, 27, 77, 269-280.
- Bulard, M. (2012). *El Atlas de Le Monde diplomatique: [nuevas potencias emergentes]*. Valencia: Cybermonde.

- Easterling, K. (2005). *Enduring innocence: Global architecture and its political masquerades*. MIT Press, Cambridge, Massachusetts.
- Koolhaas, R. (2010). *Sendas oníricas de Singapur. Retrato de una metrópolis Potemkin... o treinta años de tabla rasa*. Gustavo Gili, Barcelona. (orijinala Koolhaas, R. eta Mau, B. (1995). *S, M, L, XLn* argitaratua, The Monacelli Press, New York, 1008-1089 or.)
- Shaxson, N. (2011). *Treasure Islands: Uncovering the Damage of Offshore Banking and Tax Havens*, Palgrave Macmillan, New York.
- Sheller, M. eta Urry, J. (2006): "The new mobilities paradigm", *Environment and Planning A*, 38 (2), 207-226.
- Urry, J. (2007). *Mobilities*. Polity Press, Cambridge, UK.
- \_\_\_\_\_ (2014). *Offshoring*, Polity Press, Cambridge, UK.
- Wilson, D., eta Purushothaman, R. (2003). *Dreaming with BRICs: The Path to 2050*. Goldman Sachs, New York.

## 6. Eskerrak eta oharrak

Ikerketa hau burutzeko jaso den oinarrizko laguntza Eusko Jaurlaritzaren PREDOC doktoretza aurreko programa izan da. Programa honek atzerrian egindako ikerketa-egonaldietarako duen burtsak ere lagundu zidan Erresuma Batura joaten. Era berean, eskerrak bertan hartu nindutenei, zehazki, Lancasterreko Unibertsitateko *Centre for Mobilities Research*ekoei; bereziki, Monika Büscher eta Jen Southerni, ikerketa gidatzeagatik. Eta John Urry maisuari, emaniko aholku baliotsuengatik.

Madrilgo Arkitektura Goi Eskola Teknikoan ere pertsona ugari eman behar dizkiet eskerrak. Ikerketa honen hasiera *Máster en Proyectos Arquitectónicos Avanzados* delakoan eginiko tesina izan zen; garai hartan Darío Gazapo masterreko eta proiektu-departamentuko zuzendariak agertutako konfiantzari esker hasi nintzen sakonago ikerketa-munduan murgiltzen. Ondoren, Federico Soriano tesi-zuzendariak inguruneari egiten dizkion begiratu zorrotz eta azkarrak izan dira inspiragarri.

Eskerrak ematea gustatuko litzaidake tesi honen zati ezberdinak hainbat kongresu eta foroetan entzun dituztenei; euren komentarioek lanari aberastasuna eta sakontasuna gehitu diote.

Azkenik, nola ez, eskerrak gurasoei, nebari, tesi honen bidean jaio diren seme-alabei eta Frani.